

Guillermo Bengoetxea, Hartza bertsoetan jarri ebana


Txindurrik jakin izan balu berak idatzitzako koplak zenbat eskuren artian ibilliko ziran edo orduan musikatutako istorixia zenbat ahok kantaiko eben, hotz kirrixa sentiduko eban. "Hartza" eguneko bertsoen egille honek, bere izena dantzan ibilli deixan, ezin gauza hobiaorik asmau!

Ermuko Izelaieta kalia jaixo zan 1878ko otsaillaren 10ian Txindurriñeko etxian. Pedro Bengoetxea Lasarte eta Juana Izagirre Arrasketa aittamak, Mallabixan eskola-maixu ona euala eta bertara eruatia erabagi eben. Ondo erabagitxa gaiñera, han ikasitxakuak mesederako izango jakozan eta eskribitzia zein leitzia ekanduko jakon bakotxian. Ideologia jeltzaleko "Euzkadi" aldizkarixan, ermuarren eta partiaduakin zerikusixa eken gauzak idazten zitxuan, dakigula eta bere ete-naldixak barne 1914tik 1931ra. Euskera eder eta jasuan, herriko gertaera sozial zein politikuen barri emoten eban puntualki.

Baiña bere korrespontsal aldetik baiño guregana bere bertsozaletasunagaitxik ailegau da. Ferixetan saltzen egoten ziran kantu-papelak erosi eta buruz ikasitiaz gain, gustau eitxen jakon beranak papeleratzia eta bertsoak eitxeko enkar-guak be eukitzen zitxuan. Zenbait pla-

zetara be juandakua da eta Bizkaiko 1958 urteko txapelketara gonbidauta egon arren ez zan jua. "Karmel" aldizkarixari esker bere berbak ailegau jakuz: "...makiña bat enpañu egin dit ba Enbeita zanaren semeak, baiña zertara joango nintzan? Yxilik euki bearrekoen bat esan gabe ezin egongo nintzan eta etxian gelditzia obe...". Bere gaiñeko hainbat aitxamen eitxen dira Karmeliten argitalpen horretan.

Aitxa Pedro "maestro llavero" zan ezkondu zanian, bera armerua eta Konpañian, trenbidietan be enpliatu egon zan. Erromadetako Luzia Isasi-Isasmendi Marzanarekin 1902ko otsaillaren 8xan batu zan eta ezkontza-bidaia Madrilera eiñ eben. Orduan denporetarako, gaur egunian Caribe aldera abixatzia beste! Zazpi izan ziran jaixotako seme-alabak, nahiz eta batzuk txikitxan galdu. Gaur egunian 99 urte ditxuan Maria alabiari galdetu dotsagu aitxa zelakua eban: "gizon bizixa eta jenixokua. Pertsona ona.



Mesede eitxiarren, Urkora be bai oiñazian! Ondo eitxiarren... Beti esaten eban kalterik iñori etxakola eiñ bihar."

Bere idazte eta ideologixa nazionalistegaitxik preso eruan eben, Bilboko Larrinagako gartzelara lelengo eta Pontevedrako S. Simon irlara gero. Lagun asko egin zitxuan bertan eta han emondako ixa 3 urtetan, bere umore ona izan zan barrukuen danboliña.

88 urtekin hil zan neumonia baten ondorixoz, jaixotzen ikusi eban etxe berian. Mariari esatia gustatzen jakon modura "ai, gure sukaldiak berba eingo balu...!" Seguru egon lagunok, kontu, kantu, bertso eta suzedidu ugari esango zitxuala!

Estibalitz González

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA

J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia




TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2
Tlf: 17 67 83